

Hitzaurrea



Urralde urrunetan –Danimarkan– duela 200 urte HANS CHRISTIAN ANDERSEN jaio zen apirilaren 2an. Jakina denez, Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da egun horretan, idazle danimarkarraren eta bere obraren kalitatea eta garrantzia nabarmendu nahian.

Guk, Behinolakideok, bat egin nahi dugu aurten ospatzen ari den urtemuga horrekin eta honako ale hau berari eskainia doa.

Hasteko, *Hitz eta Pitz* atalean PATXI ZUBIZARRETAK GUSTAVO MARTÍN GARZORI egindako elkarrizketa sakona eta mamitsua irakurtzeko aukera izango dugu. Martín Garzok bi Espainiako Sari Nazional ditu, horietako bat Haur eta Gazte Literaturan «Tres cuentos de Hadas» liburuarekin irabazia iaz (Siruela argitaletxea, *Las tres edades bilduma*, Madrid, 2003).

Ondoren, harribitxi bat aurkituko dugu. Emilio Aragón –aktore, aurkezle, musikari...– ezagunak musikatu eta PATXI ZUBIZARRETAK moldatutako «Beruneko soldadutxoa»-ren bertsio zoragarria heldu zaigu *Hitzontzi* sailean.

Jarraian, SEVE CALLEJAK «Odensera gutuna» artikulua samurra edukinez zein jakinduriaz betea bisitan dator *Hizpide* atalean.

Gero, Galtzagorri Elkarteak «aurreko ikasturtean» burututako hainbat egitasmoen berri emango dugu: Liburuaren Altxorra, Liburu Gaztea, Idazle Gaztea, zenbait areto ezberdinen informazioa eta bulego berriaren datuak zein argazkia.

Gainera, ohi bezala, *Hitz beste* sailean erreseina eta literatur kritikak bilduko ditugu, irakurle ezberdinen iritziak jasoko direlarik bertan. Hemendik dei bat zabaldu nahi genizuke irakurle zairen horiei liburuaren erreseinak egiteko eta galtzagorri@galtzagorri.org helbidera igortzeko, gurea den atal hau aberasteko.

Bestalde, CARLO FRABETTI idazle eta matematiko italiarrak –Espainia Estatuan bizi dena–, Nueva York-eko Zientzietako Akademiako partaidea denak gure Behinolarako idatzitako artikulua zinez kritikoa eta zirikatzailea aurkezten dugu *Hitzatze* sailean.

Ziur gaude irakurleak estimatuko dituela zenbaki honek lagun dituen ilustrazioen kalitatea eta ikusgarritasuna. Ale honetarako ASUN BALZOLA ilustratzaile ezaguna gonbidatu dugu bere marrazkien trazo pertsonal horrekin aldizkaria ornitzeko eta osatzeko.

Hitzaurre honi behin betiko amaiera eman baino lehen, XABIER OLASORI gure zorion zintzo eta beroenak eman nahi genizkioke berriki *Pupuan trapua* (Pamiela, 2004) poesia libuarekin Euskadi Saria irabazteagatik.

Besterik gabe, hurrengo zenbakia arte, izan ongi eta irakurketa on!